

OCCIDENTAL BILBAO HOTELA

Lau izarreko garaipena



OCCIDENTAL BILBAO HOTELA

Lau izarreko garaipena

Aurkibidea

- 3** Sarrera
- 5** 1 Barceló-SAMSIC bikotea
- 9** 2 Nork garbitzen du Hotela?
- 11** 3 Grebaren aurrekariak
- 15** 4 Taldearen haustura: banandu eta garaitu
- 17** 5 Sei eguneko greba
- 20** 6 Akordioa
- 23** 7 Lau izarreko garaipena

www.mrafundazioa.eus
E-maila: fundazioa@ela.eus
Twitter: [@mrafundazioa](https://twitter.com/mrafundazioa)

Fotokonposizioa: *Bilbograf*
Inpresioa: *Bilbograf*

SAMSIC IBERIA azpikontrata
Occidental Bilbao Hotela
6 eguneko greba
2017/03/20tik 2017/03/25era

Sarrera

Inoiz sentituko zenuten etxetik kanpo egon zaretenean, hotel bateko gelan sartu eta erabat liluratuta sentitzea norbere etxean topatzen ez duen txukuntasunarekin. Garbitasuna, ordena eta tolesturarik gabeko izara zuri-zuriak ohe gainean. Zer ezkututzen da, baina, xahutasun horren atzean?

Nahiago genuke magiaz iratxoek egin dutela sinistu, baina jabetu gaitezen txukuntasun horrek estali ohi duen lan prekario eta ikusezinduz.

Kontatzera goazen gatazka lan hau egiten duten emakumeen greba da: 2017ko martxo hasieran, Bilboko *Barceló-Occidental* hotelak gelak garbitzeko azpikontratatu duen SAMSIC enpresako emakume langileen. Gatazkaren beste muturrean, gelen garbiketa egiteko *outsourcing* bidez azpikontratatu dagoen enpresa dago, subrogazio eskubidea bermatzen ez duena eta Ostalaritza Hitzarmena aplikatzeari muzin egin nahi diona. Ezaugarri hauek sektore prekarizatu eta feminizatuan gertatzen direnean, eztanda egiteko moduko osagaiak dauzkagu.

Azken urteotan ostalaritzak martxan jarritako estrategietako bat da *outsourcinga*. Geroz eta sektore gehiago dira, *outsourcingaren* bitartez lanpostuak kanporatzen dituztenak, azpikontratatuak enpresek miseriako baldintzetan bereganatu ditzaten. *Outsourcingak* esan nahi du hotelak azpikontratatu duen enpresa aldatzen duenean, langileek kalera joateko aukera handiak dituztela. *Outsourcingak* esan nahi du, langile azpikontratatuak hoteleko plantillakoek baino lan baldintza nabarmen prekarioak dituztela.

2017ko martxoaren 31n, azpikontratazioaren epea amaitzera zihorean, SAMSICen lanean ari ziren emakumeek mehatxu garbia jaso

zuten. Hoteleko kudeaketaren arduradun batek jakinarazi zien ez zituzte-
la hotelean nahi: gelen garbiketa zerbitzua enpresaren esku lagako zute-
la eta beraz kalera joango zirela. CONSTANT, ostalaritza sektorean jar-
duten duen enpresa erraldoia da, Bilbon NH eta Hotel Nervion-en garbi-
keta daramana. Ezaguna da baita ere Ostalaritza Hitzarmena aplikatu
ordez, langileei enpresa hitzarmena aplikatu ohi dielako. Hitzarmen ez
duin bat aplikatzeak dakarzki 800 eurotara iristen ez diren soldatak, ema-
kumeei garbitzen duten gela bakoitzeko 2,22 euro eskas ordaintzea.

Azpikontratazioaren iraungitzeak erabat kolokan jartzen zituen
SAMSiCeko bederatzi langileen lanpostuak: martxoaren 31n kaleratuak
izango ziren. Egoeraren larritasunaz jabetuta, haietako zazpik ekin zioten
grebari sindikatuaren babesarekin.

Liburuxka honen helburua gatazka horretara gerturatzea da, emaku-
me hauen bizipena hurbilagoetik ezagutu ahal izateko. Ostalaritzaren mun-
duaren eta, kasu honetan, Occidental-Bilbao hotelaren izarren atzean
zelako esplotazioa existitzen den erakutsi nahi dugu. Baina horrekin bate-
ra, langileek, antolatzen direnean, egoera eraldatzeko duten gaitasuna



ere nabarmendu nahi dugu. Egia da *Outsourcinga* geroz eta hedatuago dagoen fenomenoa dela: bereziki zabaldua dago ostalaritza sektorean baina gainontzeko sektoreetan ere finkatuz doa. Baina hedatuz doa baita ere sektore hauetako langileak antolatzen direnean eskuratzen diren garaipenak.

1 Barceló-SAMSIC bikotea

Greba honen barrenean sartzeko borrokan aritu ziren emakumeengana jo nahi genuen barrutik bizitakoa lehen pertsonan kontatu ziezaguten. Baina alde z aurretik, ezinbestekoa zen testuinguruan lur hartzea. Batetik, Occidental-Bilbao hotelaren zenbait aurrekari, eta bestetik, ikuspegi orokorrago batetik, ostalaritza sektorean azken urteetan enpresa erraldoi edota multinazionalak erabili ohi dituzten trikimailuak ezagutu beharra zegoen. Helburu horrekin ELA sindikatuko Iñaki Oliden (Bilbo eskualdeko Zerbitzuak federazioko arduraduna) eta Joseba San Miguelekin (Zerbitzuak federazioko arduraduna) bildu ginen.

Ostalaritzaren mundua oso basatia izan daiteke eta enpresa -asko transnazionalak- eta talde erraldoiak elkarren arteko norgehiagoka bizian aritzen dira: hotel kateak salerosi, izenez aldatu, zerbitzuak azpikontratatu, zenbat eta gehiago bada hobe... Enpresariak geroz eta sektore liberalizatuagoa nahi dute eta horrek lan munduan dakarrena ezaguna dugu: prekarizazioa, azpikontratazioa, ezezonkortasuna...

Iñaki eta Josebak hotel kate handiez hitz egin ziguten, firma ezagunez eta ez hain ezagunez, azpikontrata ezberdinez. Hainbeste izen eta sigla artean, zorabiatu ginen: Holiday Inn, Barceló taldea, Occidental marka, SAMSIC Iberia, CONSTANT, Alternativas Inmobiliarias Globales, Gestión de Activos Turísticos, jabeak, kudeatzaileak, azpikontratuak... Sektorea erabat zatikatuta egotea ez da halabeharrezkoa, ez ustekabekoa, ezta akzidentala ere: ostalaritza sektorearen ezaugarri funtsezkoa da frag-

mentazio hau. Izan ere, zatikatze hau prekarizazioa areagotu eta langile antolatuen indarra oztopatzeko estrategiaren parte da.

Aurkeztu dezagun pausoka Barceló-Occidental eta SAMSIC Iberiak osatzen duten erraldoi-bikotea:

- **Barceló taldearen Occidental-Bilbao hotela:**

Bilboko Begoña auzoan kokatzen den hotel honek 1964 urtean ireki zituen lehen aldiz ateak. Gaur egun Occidental-Bilbao izena badu ere, aurretik beste izen batzuk izan ditu:

Barceló Avenida, Holiday Inn Bilbao. Barceló taldearen parte da 2016eko abenduaren 30etik. Izan ere, bost urteko parentesiaren ostean Barceló taldeak hotela berreskuratu zuen Holiday-Inn Bilbaoren eskuetatik.

Barceló taldea, ostalaritza sektoreko handietako bat: 230 hoteletik gora dituzte, 50.000 logelatik gora munduko 21 herrialdetan zehar. Enpresa honen ikurretako bat, lau eta bost izarretako hotelen espezializazioa da. Balearretan jatorria duen kate hau, espainiar estatuan laugarrena da, eta hotelen sektorean lau marka ezberdin ditu: horietako bat da Occidental. Luxuzko establezimenduak, 2015 urtean 300 milioitik gorako irabaziak izan zituen.

- **SAMSIC Iberia:**

SAMSIC Iberia enpresa, Occidental Bilbaok *outsourcing* bidez azpikontratatzan duen enpresa da: hoteleko logela eta leku komunak garbitzeaz arduratzen da. SAMSIC Iberia, Groupe-SAMSIC jatorri frantseseko talde erraldoiaren parte da: nazioarteko enpresa hau zerbitzuen sektorean aritzen da, batez ere erresidentzien esparruan. Zaila da talde-osoan dabilen langile kopurua ezagutzea, baina 70.000tik gora izango dira Europa osoan zehar. Taldearen urteko negozio bolumenak ere izugarriak dira: 1.500 milioi eurotik gorakoak.

2016 urtearen akaberan, Barceló taldeak goitik behera eraberritutako hotela berreskuratu zuen Holiday-Innen eskuetatik. Garai horretan, hoteleko logela eta leku komunak garbiketa zerbitzua SAMSIC Iberia enpre-

saren esku zegoen. Hotela berreskuratzeko unean 9 emakume ari ziren lanean SAMSIC enpresarentzat. Jabego aldaketak aurretik sinatuta zeuden merkataritza kontratuak beste hiru hilabetez luzatu ziren, alegia, 2017ko martxoaren 31ra arte. Barcelók subrogazio eskubidea ukatu zion SAMSIC enpresari eta data horretatik aurrera, bertako langileen lanpostuak kolokan zeuden. Barceló kateak badu beste hotel bat Bilbon bertan: Barceló-Nerviión Campo Volantin. Bertan, enpresa azpikontratatzan dute gelak garbitzeko eta, horregatik, pentsatzekoa zen SAMSICekin kontratua amaitzean, Occidental hotelean ere CONSTANT enpresara joko zutela garbiketara azpikontratatzeko.

Ez ahaztu, NH Villa de Bilbao hotelak, CONSTANT enpresa dela eta, ELArekin gatazka handia izan zuela. Gogoratu, azken horretan ELAk greba mugagabea deitu zuen, langileen subrogazioa bermatuko zuen eta baldintza sozio-laboralak hobetuko zituen akordio batekin bukatu zena (ikus ondoko koadroa).

CONSTANT bezalako enpresak hotelen sektorean murgildu direnetik lana zeharo prekarizatu da. Alde batetik uko egiten diete Ostalaritzako Hitzarmena aplikatzeari eta horren ordean, estatu mailako hitzarmenak



Beste garaipen bat

Garbitutako gela bakoitzeko 2,4 euro jasotzetik,
1.100 euroko gutxieneko soldata izatera

NH Villa de Bilbao hoteleko gelak garbitzen zituzten Constant azpikontratako langile hauek. Gela bakoitza garbitzearen truke 2,40 euro jasotzen zituzten. Iruzurtean oinarritutako aldi baterako kontratuak zituzten, inolako bermerik gabe. Hori guztia gutxi balitz hainbat lankide kaleratu berriak ziren. Egoera jasangaitza zen benetan. Horregatik 2017ko urtarilaren 23tik aurrera greba mugagabea deitua zuten.

Zorionez, greba ez zen egin, deialdiaren bezperetan akordioa lortu baitzuten hiru aldeek: langileek, Constant azpikontrata eta NH Villa de Bilbao-k. Lortutakoa lan akordio bikaina zen. Hemendik aurrera behin-behineko kontratuak mugagabeak bihurtuko dira; kaleratzeak saihestuko dira; maiatzaren lehenetik hilean gutxienez 1.100 eurotako soldata bermatua izango dute, egun 850 eurotara heltzen ez denean; hortik aurrera Bizkaiko Ostalaritza hitzarmena erreferentzia hartuta soldata igoera progesiboak lortzeko oinarriak finkatu dira; lan eta bizi baldintzetan hobekuntza nabarmenak suposatuko duten beste hainbat gairi aurre egiteko negoziazioak ireki dira...

ELAk hamaika aldiz salatu du estatu mailako zerbitzuetako enpresetan diharduten azpikontrataturako langileen egoera kaxkarra. Constant-eko langileek arazo larri honen beste adibide bat besterik ez dira. Horregatik lortutakoa lan-hitzarmen soil bat baina askoz gehiago da. Azpikontratetan prekarietateari aurre egiteko mugarri izan daitekeen hitzarmena da.

Handia da langile hauek lortu dutena. Oso handia. Iruzur egiten duten sasi enpresa hauei aurre egin eta prekarietatea estu jartzea lortu dute. ELAk azpikontratazioak suposatzen duen prekarizazioaren kontra borrokatzen jarraituko du. Honako hau lehen mugarri bat izan da. Etorkezunean gehiago ere etorriko dira.

baliatzen dituzte: hileko soldata nekez iristen da 850 eurora eta garbitutako gelako 2,2 euro ordaintzen dizkiete. Izatez zerbitzu-enpresa hauek aldi baterako sasi lan enpresen itxura hartzen dute, langileak merke lagatze-

ko eta erreferentziatzeko hitzarmen probintzialen aplikazioa saihestuz gutxienez iristen ez diren soldatak ordaintzeko.

Ostalaritza sektorean, hotel kateek, kalitate izarrak eta mozkin erraldoiak lortzeko, eskrupulu gutxi dute langileen esplotazioa nahi beste biziagotzeko.

2 Nork garbitzen du Hotela?

Greban bizi zutena barrutik ulertu ahal izateko bi emakumekin elkartzu ginen. Bilboko Justizia jauregiaren atzeko aldean kontzentrazio batean parte hartzeko deituta zeuden eguna aprobetxatu genuen hitzordua egiteko. Orduan ezagutu nituen Iris eta Ascen. Irisek, SAMSIC enpresan lan egiten du hoteleko gelak garbitzen eta berriki ELAko ordezkaria ere bada. Ascenek ere gelak garbitzen ditu baina azpikontrataziorik gabe, zuzenean hotelarentzat egiten du lan. Gelak nork garbitzen zituen galdetutakoan biok barrez hasi ziren eta itxuraz sinplea zirudien galdera hark nahasmena sortu zigun. Algara horrek behar zuen azalpena emateko eskatu genien.

Alde batetik, hoteleko plantillan 3 emakume daude gelak garbitzen, eta horietako bat dugu Ascen. Emakume hauei enpresako hitzarmena aplikatzen diete: ez dute asteburu eta jaiegunetan lanik egiten, solairu bakar batean lan egiten dute eta logela gutxiago egunean.

Bestalde, SAMSIC enpresaren bitartez, beste bederatzi emakume daude azpikontratatuta, eta horietako bat dugu Iris. Bistakoa da, azpikontratazioaren bidez bideratzen dela gela garbiketaren zatirik potoloena. Izan ere, hotelak zuzenean kontratatutakoen hirukoitza dago azpikontratatuta eta, honenbestez, baldintza prekariagoetan: asteburu eta jaiegunetan lan egiten dute, eta 18 logelako maximoa eguneko.

“Hotelak plantillan geratzen garen hiruak alde batera utzi nahi gintuzke, gelen garbiketa %100ean azpikontratatu ahal izateko. 2013 urtean, oraindik hotela Holiday-Inn enpresaren esku zegoenean, 9 ginen plantillan, eta, orduetik, joera nabaria da” diosku Ascenek. “Dena azpikontratatu nahi lukete eta langileen arazoetaz ahaztu. Ez dute nahi protesta dezagun. Horixe da Bilboko Hotel guztiek nahi dutena”. Irisek ere garbi azaltzen du: “Azpikontratazioa erabiltzen dute, lehengo ETTen orde. Langileen erabateko sumisioa eta mendekotasuna nahi dute”.

Zerk oztopatzen du hotela, hortaz, azpikontratazioa muturreraino eramateko?

Hotelak, enpresa hitzarmena du 2014 urtetik, eta hitzarmen horretako 33. artikulua giltzarria da gelen garbiketa lanen azpikontratazioari mugak jartzeko. Hau da, hotelari mugak jartzen dizkio azpikontratatu ditzakeen pertsonen kopuruan. Aurrerago aztertuko dugun arren, hitz gutxitan azaltzeko, artikulua honen arabera gehienez 9 pertsonen lana azpikontrata dezake hotelak gelen garbiketa egiteko (ikus 12. orrialdeko koadroa).

Zer egiten du hotelak langile gehiagoren beharra duenean, ezin badi-tu 9tik gora pertsona azpikontratatu? Hotelak daukan muga honek atek irekitzen dizkio hirugarren figura bati: hotelak zuzenean kontratatzen dituen langile finko-etenak. “Hauei hotelak zuzenean dirua lapurtu egiten



die” esaten digute Ascen eta Irisek. “Lan egiten duten egun bakoitzeko ordaintzen zaie, ez dute opor eskubiderik sortzen eta gu baino bospasei logela gehiago garbitzen dituzte; erabat diskriminatuta daude”. Baldintza prekarioenak inposatzen jarraitzeko bidea da finko-etenena. “Denak gizonetzkoak dira” entzuteak ustekabean harrapatu gintuen. Egia esan, garbiketa bezalako sektore feminizatu batean, harrigarria zirudien erantzun horrek. “Denak gizonak eta etorkinak. Sei hilero kaleratu eta berriak hartzen dituzte”. Horrekin argitu ziguten gure sorpresa: feminizatuaz gain, prekarizatu dago garbiketaren sektorea da eta langileak esplotatzerako orduan, ahulengana jotzen du: emakumeak eta etorkinak.

3 Grebaren aurrekariak

2017ko martxoaren 31n, azpikontratazioaren epea amaitzera zihoala eta, bilera bat egin zen ELA eta Barcelóko arduradunen artean. Jose Luis Fernández, hoteleko zuzendaria, zegoen bilera horretan eta ELAri argi plazaratu zion gelen garbiketa beste enpresa batekin azpikontratatu zutela. “Ez ditut nahi, denak kalera doaz” esan zuen SAMSICen ari ziren bederlatzi emakumei buruz. “Ez gintuzten hotelean nahi” azaltzen digu Irisek. Egoera horretan, zazpi langilek grebari ekin zioten ELA sindikatua- ren babesarekin.

Langile talde bat ez da greba deialdira bapatean iristen. Grebak eztanda egin aurretik, emakume gehienak ELAn afiliatuta zeuden eta aurretik greba egindakoak ziren. Hasteko, SAMSICeko langileetako batzuk aurretik CONSTANT enpresarentzat lanean arituak ziren Bilboko NH hotelean, eta ordutik ziren ELAko kide.

Beste hiru emakume, 2016ko udazken aldera afiliatu ziren, hain zuzen ere, elkarrizketatzen ari ginen Irisen kaleratzeak bultzatuta. Gaur egun delegatua den Iris, 2016ko urrian afiliatu zen. Ebakuntza bat egin beharrean zegoen, eta bazekien ostean 180 eguneko baja izango zuela, eta

Korapiloak askatuz

Subrogazioa mugatzeko giltza: enpresako hitzarmena

Liburuxka hau idazteko garaian Enpresako Hitzarmena negoziatzen ari dira. Hitzarmen berriaren gakoetako bat, aurreko hitzarmen batetik herrestan daraman artikulua mantentzea da. Hitzarmeneko 33. artikulua da hain zuzen ere, azpikontratazioari muga jartzen diona. Joseba San Miguelek azaltzen digunez, artikulua hauxe da hitzarmena berriztatzea zailtzen duena.

Enpresa hitzarmena 2014/09/01etik 2014/12/31rako sinatu zen, hotela Holiday Inn katearen esku zegoenean. Akordioak ultraktibitatea zuen eta bere 33. artikuluan jasotzen zuen enpresak zerbitzuak azpikontratzeko muga zehatza: 6 langile gehienez. 2015 urte amaieran, eskuz aldatu zen hotelaren kudeaketa, Alternativas Inmobiliarias Globales-en eskuetatik G.A.T. enpresaren ardurara pasatuz.

G.A.T-koek hasiera batean jarraitu zuten hitzarmena aplikatzen, baina handik hilabete gutxira, enpresa hitzarmena aplikatzeari utziko ziola esan zuten eta, beraz, ez zuela 33. artikulua errespetatuko.

Egoera horren aurrera, ELAk grebarako deialdia egin zuen eta prozesu horretan epaiketa prozesu bat martxan jarri zuen, hilabete bat bazelako hitzarmena aplikatzen ez zela. Mobilizazioari erantzuna emanez, enpresak bilera batera deitu zien PRECO-n eta akordioa sinatu zen, greba ekidinez. Gatazka, noski, Enpresa Hitzarmena aplikatu behar horretan dago. PRECO-n lortutako akordioaren bitartez, judizializazioa etenda gelditu zen.

PRECO-n akordioak hurrengo jaso zuen: hitzarmen berria adostu bitartean, era iragankorrean, Enpresa Hitzarmena aplikatuko dela 2016/12/31raino. Baina 33 artikuluari buruz, azpikontratzeko muga 6 langiletik 9 langilera igarotzen da. Gainera, plantillako jendea oportretan dagoenean, beste 3 langile gehiago azpikontratzeko bidea irekitzen du.

Trantsitorietatea amaitu aurretik, 2016 urteko abenduaren 28an, Hotela Holiday Inn-en eskuetatik Barceló Occidental-era pasatu zen. Momentuz, Occidentalek plantillakoei Enpresa Hitzarmena aplikatzen die, 2014etik arrastaka datorren huraxe, eta oraingoz baita ere, PRECO-n azpikontratazioari jarritako muga (9+3) ere errespetatu egiten du.

enpresa ezagututa kaleratua izateko arrisku handia zuela. Susmoak egi bihurtu ziren 2016ko urriaren 6an kalera bota zutenean. ELAra etorri zenean bere kasua azaltzera, ELAko Joseba eta Iñakik argi ikusi zuten: despidoa nulua zela frogatuko zuten.

Irisen baja sexu-aldaketa prozesuaren barruan ebakuntza baten ondorioa zela jakin zutenean, are nabarmenagoa izan zen: bajak zigortzeko estrategiaz gain sexu aniztasunaren kontra joazarpena ere nabaria zen. “Enpresak zu berronartzea lortuko dugu”.

Irisen kaleratzea grebaren detonatzailea izan zen. Langileentzat, eta ELArentzat noski, garbitzaileen lan baldintzak onartezinak ziren lanpostuen kategoria, lan jardunaldi eta deskantsuei zegokionez.

Ostalaritza hitzarmenaren aplikazioa ez da bermatua datorren zerbait, langileek borrokatu eta eskatu beharrekoa baizik. 2016ko otsailean azpikontratu zen SAMSIC enpresa gelen garbiketaz ardura zedin. Ordura arte ez zitzairen langileei Ostalaritzako Hitzarmena aplikatzen eta, aurretik esan bezala, garbitzen zuten gela bakoitzeko 2,22 euro ordaintzen zieten: nekez heltzen ziren hilean 700 eurotara. SAMSIC hasiera batean Ostalaritzako Hitzarmena aplikatzen hasi zen eta egoeraren hobekuntza bat nabaritu zuten: soldata finkoa izatera pasatu ziren eta lehen baino 400 euro gehiago jasotzen zuten hilean. Baina, era berean, enpresak langileak estutzen jarraitzen zuen: ez zitzairen janari ez trebakuntzarik ordaintzen, ez zuten subrogaziorik, eta egunean garbitzen zuten gela kopuruak hitzarmenak ezartzen zuen gehienekoa gainditzen zuen. “Egunean 18 gela garbitu ordez, 20 edo 21 arte egiten genituen extra moduan, gure arduradunak eskatuta. Gerora jakin genuen guk gela gehigarri horiek kobratzeagatik nagusiak gure bizkar kobratzen zuela”.

Irisek azaltzen digu: “Horrela ezin genuen gure lana ondo egin, ez zegoen logelak taxuz garbitzerik”.

Irisen kaleratzea SAMSIC enpresako Giza Baliabide arloko arduradunak gauzatu zuen, GAT enpresaren babesarekin. GAT enpresa hotelaren kudeaketaz arduratzen zen garai horretan, hotela Holiday-Inn-en esku zegoen bitartean. ELArentzat onartezina zen halako kaleratze bat. Enpresako arduradunek Iris kaleratu zutenean bajaren kausaren jakitun

zirela frogatzen bazen, diskriminazio kasu garbia litzateke. Ascen-en arabera “enpresarentzat orban beltz bat da Iris”. Une horretan beste lau kide ELA sindikatuan afiliatu ziren. Egoera hori salatzeko 2016ko urriaren 19rako greba deialdia egin zuten.

Greba 2 hitzetan

Jone Bengoetxea · ELAko Genero politikak

“Ez dute ezer galtzeko”



Emakume hauek prekarietate oso gordina bizi dute lan esparruan eta horrek beraien bizi baldintzak ere prekarizatu egiten ditu. Beraiek dira prekarietatea. Kultura sindikal eta feminista txikia duen sektorea den arren, bizi duten prekarietate honek eramaten ditu emakumeak antolatze-
ra: ez dute galtzeko ezer. Occidental-Bilbao hoteleko garaipena aintzat hartu beharrekoa da.

Grebaren eta (zorionez) akordioaren bitartez, emakume hauek ahalduntze prozesu oso garrantzitsua bizi izan dute: prozesu hau da greba honi izaera feminista ematen diona.

Akordioari esker, beraien lan baldintzak nabarmen hobetzen dira: ez ahaztu emakume askoren kasuan, beraiena dela etxeko soldata nagusia eta ez dutela inoren osagarri izan behar. Baina behar materialetatik abiatutako borroka hau, askoz harago doa: beraien lan baldintzak eta

interesak negoziatzeko ahots bilakatu dira. Bidean konturatu dira sindikatua eskura daukaten tresna bat dela eta pozgarria izan da ikustea, beraietako batzuk zelako motibazioarekin hurbildu zaizkigun: negoziatio kolektiboaren inguruan gehiago ikasteko, hitzarmena hobeto ezagutzen, aurrean duten enpresa zein den jakiteko...

Hoteletako gelak garbiketa sektorea, oso fragmentatuta dago. Emakume asko bakarka ari dira lanean, azpikontrata batetik bestera. Infojobs bezalako enplegu-atari bati jarraituz, hotel batetik bestera mugitu ohi dira, hiri batetik bestera eta sarritan estatu osoan zehar. Mugarik ez duen sektorea da: hotel kateak munduan zehar hedatuta dauden bezala, hoteletako garbitzaileak ere, mundu osoan zehar barreiatuta daude.



Greba deialdi horretan Irisen berronarpena exijitzen zen, diskriminazio sexuala salatuz. Horretaz gain, lan baldintzei zegokionez ere baziren zenbait eskakizun. Horien artean azpimarragarriena: langileek kategoría igoera bat eskatzen zuten ostalaritzako hitzarmenaren barruan. Kategoría aldaketak “mozas de limpieza” izatetik, “camareras de piso” izatera zekarren eta hilean 100 euro gehiago kobratzea. Greba hura garaipena izan zen langileentzat: Iris enpresan berronartua izan zen eta kategoría hobekuntza ere eskuratu zuten. Une honetan ez zegoen delegaturik baina langile guztiek sinatu zuten, beraz oso lerrokatuta zeudenaren seinale.

4 Taldearen haustura: banandu eta garaitu

Iris eta Ascenekin kafe baten bueltan gaudela, beraien artean dagoen konplizitatea eta gertutasuna agerikoa da. Honek, nolabait, hoteleko gelen garbiketaz arduratzen diren hiru figuretatik, behintzat, biren artean dagoen harremana islatzen du: hotelako plantillako finkoez eta SAMSICeko azpikontratatuakoen arteko erlazioaz ari gara.

Hau ez da beti horrela izan, Irisek esaten digu, “gure arduradunak oso txarto hitz egiten zigun hoteleko pertsonalari buruz. Burua berotzen ziguten haiekin harremanik izan ez genezan”. Ascenek dio “ez zieten gurekin hitzik egiten uzten. Guk errealitatea erakutsi nahi genien eta haien lan baldintza okerren erantzulea enpresa zela ulertarazi”.

Gaur egun asko hobetu da bi figura hauen arteko erlazioa, batez ere beraien artean zubiak eraikitze gaitasuna izan dutelako: elkarri entzuten hasi ziren, ez zutelako haien burua etsai gisa ikusten, aliatu gisa baizik. Enpresak banaketa indartu nahi du langileen artean, beraien antolakuntza eta boteretzea oztopatu asmoz.

Tamalez, oraingoz behintzat, garbitzaileen hirugarren figura hura osatzen duten gizon etorkinekin ez dira aliantza loturak eraiki. Kontatzen



digutena larria da: “kamara bitartez zelatatu egiten dituzte gazte hauek, mutilak, ez dezaten beste langileekin hitz egin, ez dezaten gurekin hitz egin. Baten bat hurbildu izan zaigu, baina berehala atentziora deitu diote”.

2017ko martxoaren amaieran kolokan dagoena

Barceló taldeak 2016ko abenduan Begoñako Holiday-Inn hotela berreskuratzean, bi arraila zabaldu ziren: batetik subrogaziorik gabe SAMSICeko langileek kaleratuak izateko arrisku handia zuten. Bestetik, Ostalaritzako Hitzarmena aplikatuzetik, enpresa hitzarmenera pasatzeko aukerak biderkatu egiten ziren.

Jokoan zeuden 9 langileren eskubide eta lanpostuak: haietatik 7 izan ziren grebari ekin ziotenak, den-denak ELAko kideak. Beste bi langileak, haien arduradunak ziren “gubernanta eta azpigubernanta” izenez ezagutzen ditugunak. Emakumeen arteko aliantza oztopatzen zuten berberak izan ziren grebara joan ez ziren bakarrak.

Egoera horretan, Ascen Iris eta besteengana gerturatu zen grebara animatzeko: “Ez duzue beste aukerarik. Bileran argi utzi ziguten, kalera zoazte” esanez. Ascenek azaldu digu, “jende otzana nahi dute, men egin-go duena”. Azpikontratazioaren bitartez, lan baldintzak prekarizatzeaz gain, indar antolatua saihestu nahi dute, “jende horrek ez dezala taldea sortu plantillan gauden langileekin”. Irisek diosku hasieratik planteatu zutela greba mugagabea egitea, “ez genuen galtzeko ezer, eta lankide guztiok, zazpiok, ondo ikusi genuen”. Subrogazio eskubiderik gabe, kalean ikusten zuten beraien burua: “Edo greba egiten genuen, edo kalera gindoazen. Denak bat!”

Iñaki Olidenen hitzetan “onartezina eta penagarria” da estatu mailako enpresak azpikontratatzek dakarren prekarizazioa. Bere esanetan, funtsean Aldi Baterako Lan Enpresen antzera jokatzeko dute, eskulan merkea bilatuta. Horri aurre egiteko, Olidenek konfrontazioa beste biderik ez dagoela uste du. Occidental Bilbao-ko greba hau, kapitulu berri bat izan da “ELAk Hotel Abando, Bilboko Arte Ederrak eta Hotel NH Villa de Bilbaon ezagutu ditugun gatazken ostean”. Garbiketako langileek greba “bai ala bai” egin nahi zutela esateko Iñaki Olidengana jo zuten eta handik astebetara greban ziren.

5 Sei eguneko greba

Greba 2017ko martxoaren 20ean hasi zuten, merkataritza kontratua eten baino 11 egun lehenago. Langileek eskatzen zutena bi ildo nagusitan labur liteke:

- Alde batetik, Barceló-Occidentali eskatzen zioten, subrogaziorik ezean, enplegua bermatu zezala. Gai honi zegokionez, enpresak hasieratik argi utzi zuen ez zuela ezer jakin nahi.
- Bestalde, SAMSICeri eskatzen zioten, Ostalaritza hitzarmenaren aplikazioa bermatzea. SAMSIC prest zegoen hori emateko, baina

Greba 2 hitzetan

Maricruz Elkoro · ELA Zerbitzuak idazkari nagusia

“Outsourcingaren izarria”



Outsourcing fenomenoaren birtartez, Aldi Baterako Lan Enpresak (ABLE) ordezkatu nahi dira: enpresa batek langileak kontratatzen ditu beste enpresa baten instalazioetan lan egin dezaten, zuzenean kontratatua dauden langileak baino baldintza askoz okerragoetan.

Hoteletako gelen garbiketan *outsourcinga* nagusi da eta horregatik, greba honetako langileak fenomeno honen adibide argia dira: zenbait hoteletan gelak garbitzen dituztenek 850 euroko soldatak jasotzen dituzte hilabeteetan, 10.200 euro urteko, 2000

ordutik gora lan egitearen truke. Alde handia dago hotelak zuzenean kontratatzen dituen langileekin: urtean 19.260 inguruko soldatak jasotzen dituzte, urtean 1.750 ordu lan egiteagatik.

Baina eredu hau sektore eta enpresa askotan zabaldua dago. Kasu askotan legez kanpo ari dira, praktikan, langileen legez kanpoko esleipen izugarria egiten ari direlako. Larria da, Lan Ikuskaritzak eta Enplegu Sailak ezikusiarrena egiten dute.



Hotelak bermatu beharrekoa da: subrogazioa egonez gero, letorkeen edozein enpresak ere ostalaritza hitzarmena aplikatu dezan.

“Egun onak izan ziren greba egiteko, izan ere, hotelean talde ugari zeuden ostatu hartuta, kongresu bat ere bazegoen tarteko eta bezeroen aldetik elkartasuna jaso genuen. Erraz eta lasai hasi genuen, baina gero gehiagora egin genuen.”

Hotelak ez zuen batere garbi jokatu eta greban zehar protestan ari ziren langileak ordezkatzeko jendea zuzenean kontratatzeari ekin zioten, azpikontratazioa ekidinez. Legezketasun eza salatzeke ELAk lan inspektoria jo zuen. Inspektzioak, grebaren bosgarren egunean, ostiralean, agertu ziren hotelean akta jasotzera.

Greba sei egun iraun zuen eta akordioa Lan ikuskaritzaren akta publiko egin baino bi egun lehenago lortu zuten, larunbata gauean hain zuzen ere. Zapatu goiz hartan elkarretaratzea zuten antolatua hotelaren kanpoaldean. “Kontzentrazioak, gero eta zaratsuagoak ziren” esaten digute Ascen eta Irisek. “Elkarretaratze horretan, oso haserre geunden. Oraindik Lan Ikuskaritzaren akta atera gabe zegoenez, bertan zeuden ertzainekin ere solasaldia izan genuen. Hotelean sartzeko eskatu genien, ilegalki jendea kontratatzen ari zirela baieztatu zezaten, baina hori ezin zutela egin esan ziguten”. Akta hau egun batzuk geroago publiko egin zen eta horren ondorioz Lan ikuskaritzak 30.000 euroko isuna ezarri zion Occidental-Bilbao hotelari greban zehar langileak ilegalki ordezkatzeko.

Elkarretaratzearen erdian, Jose Luis Fernandez, hoteleko zuzendaria, gerturatu zitzaion bilera bat egiteko prest zeudela esateko. “Bilera bihar-munean egingo genuela esan zigun, Giza Baliabideetako arduradunak Mallorkatik etorri behar zuelako” azaltzen du Irisek. “Greba utzi genezan esaten zigun, baina argi utzi genion sinatu arte ez ginela geldituko”.

Mari Carmen Oliver, Giza Baliabideetako arduraduna espero baino lehen iritsi zen Bilbora eta, horregatik, bilera larunbata gauean bertan gauzatu zen. Bertan ziren ELAtik Iñaki Oliden, Mari Cruz Elkoro eta Joseba San Miguel. Hotelaren aldetik berriz, Mari Carmen Oliver bera eta Rafael Asuar (Barceló taldeko Europa zonaldeko arduraduna).



Joseba San Miguelek azaldu digunez “bilera ez zen ondo hasi, Occidentalekoak ez zeuden prest subrogazioa onartzeko. Haien politikaren aurka zihoala subrogazioa bermatzea eta ez zirela ari legez kanpoko ezer egiten”. Horrek egoera erabat blokeatzen zuen eta ELA grebari eusteko prest zegoen.

Puntu horretan, greba desblokeatu nahi bazen hotelak amore eman behar zuen eta akordio batera iritsi beharra zegoen. Egoera horretan, “subrogazio nominala” adostu zuten. Hau da, une horretan SAMSICen zeuden emakumeen enplegua babestea bermatzen da. Honenbestez, larunbata gau hartako akordioarekin amaiera eman zi-tzaion sei eguneko grebari.

Irisek ELAren laguntza ezinbestekoa izan zela esan zigun, “greba aurretik eta greban zehar ere ELAren sostengua oso garrantzitsua izan zen. Elkartasuna jaso genuen gure sektoretik, beste hoteletako langileen aldetik, eta noski, sostengu handia ELAren eskutik lankideak antolatzeko, mobilizazioak egiteko, pankartak, enpresarekin hitz egiteko...”.

6 Akordioa

Subrogazio nominalari esker langileen egonkortzea lortzen da. Hasteko, akordiorik ezean martxoaren 31n kalean leudekeelako. Bederatzi langile-etatik, bost lanaldi osoan eta mugagabe, eta beste lau, berriz, finko-eten gisa.

SAMSICek hitzarmen sektoriala aplikatzen zien arren, subrogaziorik egotekotan, hau ez litzateke bermatuta geratuko. Horregatik akordioa Occidentalekin sinatu zenez, nahiz eta azpikontrataturako enpresaz aldatzea erabaki, ostalaritza hitzarmena aplikatu beharko luke enpresa berriak ere.

“Gatazka gogorra izan da, oso gogorra. Baina langileen bat egiteak eta kontzientziazioak aurre egin dio Barceló kateari, eta orain, ospatu

dezakete subrogaziorako eskubidea lortu izana: beraien lanpostuen egonkortasuna edozein delarik ere garbiketaz arduratzen den enpresa azpikontratatua” dio Iñaki Olidenek. Izan ere, sindikatuak berak balio handia eman zion garaipenari. Batetik, lortutako akordioa hobe ezina zelako. Bestetik, estatu mailako enpresak azpikontratatzek dakarren prekarizazioaren aurkako garaipena ere badelako.

Irisek esaldi borobil batekin laburtu digu bizitakoa, “zaila zena erraz egin genuen: Barcelóren aurkako gatazka irabazi. Baina errazagoa zirudiena, zail egin zaigu: lankideen arteko batasuna ez dago egonkortuta. Beti dago norbait, ekipoko gobernanta edo azpigobernanta, beste kideei buruz gaizki esaka dabilena. Jarraitzen dute gure artean hausturak sortzeko helburuarekin”.

Zentzu horretan, akordioaren edukiekin eta aurrerapausoekin oso pozik agertu da Iris, baina grebaz geroztik lankideen arteko harremanean egon den eboluzioarekin sentimendu gazi-goza nabari zaio.



Greba 2 hitzetan

Naroa Elortza • ELA Komunikazioa

“Kelly-en indarra sarean”



Borroka honek sareetan sekulako boihartzuna izan du. Alde batetik hasiera-hasieratik sare sozialetan egoteko apustua egin dutelako, gakoa dena borrokaren sozializazioa lortzeko. Bestetik, estatu mailako Kelly-en lankidetzagatik, etorkizuneko borroketarako ere gakoa izango den aliantza. Gakoa zergatik? "Las Kellys" izeneko taldeak zabalkunde handia duelako sare sozialetan; gatazken sozializazioan apustu eta lanketa interesgarriak egiten dituzte,

ohiko formatutatik harago joanez. Izan ere, prekarietateari aurre egiteko komunikazio tresnen erabilpenari garrantzia handia ematen diote, eta lortu dute estatu mailan kasik ikusezina zen prekarietatea askoren ahotan jartzea. Occidentaleko gatazkak erakutsi digu, beraz, kaleko jarduerak sarean islatzeak gatazkaren hedapena eta presioa nabarmen handitzen duela, eta esparru horretan ere aliantzak landu daitezkeela.



Alde batetik, grebaren fruitu positiboetako bat Iris bera ELAko ordezkari hautatua irten izana dugu. 2017ko martxoko greba amaitu eta oso gutxira hauteskunde sindikalak egin ziren eta Irisi izan zen hautatua.

Lehen haustura Maiatzaren Lehenean bertan gertatu zen, Irisek manifestaziora joateko orduak hartu zituelako. "Pertsona batzuk, ordezkari sindikalak bizizaleztat gaituzte eta uste dute ordu sindikalak hartzen ditugula lanik ez egiteko. Ez dut ulertzen".

Irisek ez zuen berez, bere burua ordezkari izaten. Akaso, berak jakin gabe, bere barruan sindikalista bat zeramala galdetu genionean, "bai hori izango da" erantzun zigun. "Nik berez ez neukan buruan, ez nuen nahi, baina ELAtik nire aldeko apustu garbia egin zuten". Ascenek aitortu egiten digu betidanik lankideen alde egin duela Irisek, baita ordezkari izan aurretik ere. "Lankideek ez dute beti horrela ikusten. Uste dute enpresaren aurka egiten dudala, kontra egitearren". Badirudi, lantaldeko arduradunek (gobernantak eta azpigobernantak) langileen artean gaizki esaka jarraitzen dutela taldean haustura pizteko helburuarekin tematuta.

7 Lau izarreko garaipena

Lau izarreko hotelaren aurrean, lau izarreko garaipena lortu dute SAMSICeko langile hauek. Barceló katea eta SAMSIC katea, ostalaritza sektorean dabilzan bi erraldoiren adibide dira: milioi askoko irabaziak, izarrak eta itzal handiko ospea lortzeko eskura dituzten trikimailu guztiak erabiltzen dituzte, langileen ongizatearen kaltetan.

Gure zazpi emakumeek oster, lan baldintzak hobetzearen, duintasunaren eta boteretzearen alde, lau izarreko garaipena eskuratu dute.

Lehen bi izarrak, akordioaren edukiekin lotuta daude: subrogaziorako eskubidea lehena eta Ostalaritzako Hitzarmena aplikatuko zaienaren bermea bigarrena.

Hirugarren izarra gatazka honek langileen antolakuntzan eta sindikalizazioan ekarri duen aurrerapausoari emango diogu. Elkarriketatuak elkarlan honen oztopoez mintzatu zaizkigun arren, greba bukatu eta aste gutxira Iris ELAko ordezkari aukeratu izanak asko erakusten du, eta grebaren beste garaipen garbi bat da.

Laugarren izarra gatazka honek Ostalaritza sektorean zehazki eta zerbitzuen sektorean orokorki daukan proiektioari dagokio. Gatazka honen garaipenak, beste behin ere, erakusten digu posible dela gero eta prekarizatuago dagoen sektore batean aurrerapausoak ematea. Badagoela *outsourcing*aren aurrean langileen eskubideak bermatzerik, badagoela soldata duinagoak defendatzerik eta badagoela lanpostuen egonkortasuna zaintzerik. Indar agerraldi honek hoteleko atea gainditzen ditu eta sektore osoa boteretzen du.

Luxuzko garaipen honek frogatzen digu, enpresek gero eta gehiago *outsourcing*era eta estatuko hitzarmenetara jotzen duten arren, langileen antolaketa eta sindikalizazioaren bitartez posible dela horri buelta ematea. *Outsourcing*a gero eta hedatuago dagoen fenomeno da, bereziki zabaldua ostalaritza sektorean, baina gainontzeko sektoreetan ere. Dena den, hedatuz doa, baita ere, sektore hauetan langileak antolatzen direnean lortzen diren garaipenak.

